

ASTIALDIA > EUSKAL HERRIKO TXOKOAK

Ubide: **Gorbeia magalean,** atsedenerako txokoa



Ubideko udaletxea. JUANAN RUIZ / ARCAZKI PRESS

Bizkaiko herririk garaienak, mendi ugari eta ondare historiko aberatsekoak, egun-pasarako hainbat aukera eskaintzen ditu.

ANAKOZ AMENABAR

Uribe

B arazarreko portuari ekin aurretik, Gasteiztik Bilboranzko bide zaharrean, Ollerietan atzean utzi eta Ubide herri txikiarekin egingo dugu topo. Bizkaiko udalerririk garaienak, itsas mailatik 581 metrora, ikuspegi atsegina erakusten digu Gorbeia magalean. Gasteiztik hogeitabat minutura, hiriburuko zurrunbiloaren aldean isiltasuna eta lasaitasuna da nagusi Ubiden (Bizkaia). Mendizale askoren topagune, hiru kilometro koadrotan eraikin multzo garrantzitsua biltzen du.

Etxe dotore batek egingo digu ongietorria Ubidera sartu orduko. 1910. urteko estilo ingeleseko etxea da Aretxagatarrena, teilatuko egitura zuri-gorri ikusgarriarekin. Garaiko beste hainbat indiano bezala, Mexikora joan zen 15 urtekin Santiago Aretxaga, eta aberastuta bueltatu zen Josefina Lopez de Letonarekin ezkontzera, Ameriketara ostatu hartu zuen senitartekoaren alaba berarekin. Etxea Alfredo Acebal arkitekto bizkaitarrak egin zuen, *old english* eta Ana erreginaren estiloei jarraiki. Handik gertu ikus daiteke Madalenako basiliza, Santiago Aretxagak berak berreraikia.

Haren alboan Aduana ezaguna ikusiko dugu, Arabako eta Bizkaiko jaureriko lurra marra batekin bereizten zituen eraikin ezaguna. Inguruko eraikinen aldean ezberdina da erabat, XX. mendeko estilo neoingelesekoa hau.

Hain zuzen, Madalena auzoa da Arratia eskualdeko herri honetan sartzarakoan bisitatuko dugun lehendabizikoa. Atsedene hartzeko lorategi txikia eta ibai ertzean luzatzen den harrizko eserlekua ere badugu. Bertan ospatzen dituzte uztailearen 22an madalenak, ubidear guztientzako sardinak eta ardoa banatuta. Herriko jai nagusiak, ordea, ekainaren 24an izaten dira, San Joanen omenez. Su handiek ematen diete hasiera jai aste-buru beteari.

Ibai txiki bi ditu Ubidek. Gorbeian jaio eta Zeanurik eta Ubidek Arabarekin duten muga lerroa ezartzen du Undabek. Zubizabal, berriz, Saldropo mendi lerrotik heltzen da herrira eta Undaberekin egiten du bat erdigunean, Santa Engraziako urtegira urak isuriz.

Madalena basilizatik Zubizabal erreka jarraitu eta berehala helduko gara herriko plazara, San Joan auzoan oraingoan. Plaza inguruan